

egiten ez dutela, eta beren kulturako emakumeen lanak bakarrik irakurriko dituztela. Azken batean, Winsomek esaten duen bezala, «zergatik izan beharko lukete Wordsworth, Whitman, T.S. Eliot edo Ted Hughesek esanahi berezirik Karibeko jendearentzat?».

### Norbanakoa eta taldea

Hala ere, *Girl, Woman, Other* eleberriko emakumeek ez dute fronte komuna osatzen, ez dituztelako beren buruak *gu* baten parte ikusten. Ammaren antzez-lana ikusten ari dela, Carolek aitortzen du agertokia emakume beltzez beterik egoteak bere burua balioetsia sentiarazi behar liokeela, baina egiazki «nahiko lotsatuta» dago antzezlanak darabilen iruditeriagatik. Bere uestez, egokiatzaioa izango zen «benetako arrakasta adierazten duen norbait» balitz obraren protagonista, batetik bestera eroduan dabilzaten glerari lesbiana talde baten ordeiz.

Carole ez da horrela pentsatzen duen bakarra. Sexualitatea eta sexu orientazioa gai arantzatuak dira nobelako protagonisten artean. Ammaren lagun mina izan arren, Shirleyk nahiago du haren homosexualitateari buruz ez pentsatu, ez zaiolako naturala iruditzen. Bummik ia baztertu egiten du Carole, alaba nigeriar batekin ezkontzekoa ez dela jakiten duenean. Dominique, berriz, frustratuta sentitzen da bere feminismoaren arabera haiei ez dagozkien espazioak infiltratzen dituztelako emakume transexualak.

*Girl, Woman, Other*-eko pertsonailetako batek ere ez du emakumetasun beltzaren interpretazio unibertsal bat babesten; lehenik eta behin, zenbait nortasun ez lituzkete defendatu ere egingo. Rolanden aburuz, horrek ez du axola eta ez luke axola behar ere. Britainiar zurien antzera, britainiar beltz orok bere buruari buruz hitz egiteko eskubidea du, taldearen ordezkari bihurtu gabe.

Baina Rolandek arrazioa ote duen galdetzen du Evaristoren nobelak. Alde batetik, eleberririk nortasun britainiar beltzaren espektro osoa aintzat hartu, eta ospatu egiten du; baina, bestetik, Winsomek hain gogoko duen Grace Nichols poeta guyanararen poema batek aditzera ematen duen bezala («gu emakumeok/zeinen laudorioak abesteko dauden/ zeinen ahotsak entzuteko dauden»), *gu* baten beharra azpimarratzen du. *Gu* hori nola osatu heterogeneotasuna arriskuan jarri gabe, hortxe dago kokxa.

## Korapilo mataza

### Irati Majuelo

Lisipe bildumako azkena da *Trikua esnatu da* saiakera. Teoria feminista guretik eta euskaraz egiteko bidean ezinbesteko tresna bihurtu da Susako bilduma hori, eta zentzuzkoa dirudi azken argitalpen honetan bere burua definitzen duten bi oinarriei buruz gogoetaztea: euskara eta feminismoa.

Inor gutxi ukatuko du emakume edo euskaldun izatea bazterreko izatea dela oraindik gaur egun. Hala ere, gutxi teorizatu da bataren eta bestearen arteko korapiloaz, nahiz eta hizkuntzak eta generoak elkar zeharkatzen dutela ezagun dugun. Gaiari lehenago heldu ez izanagatik gure herrian sortutako gatazka eta tentsioen matazak hari solteak dituela jakitun, bi zapalkuntza horien arteko antzekotasunak eta elkar gurutzaketak dakartzigute Agirrek eta Eskisabelek. Tri-

kua esnatu, matazari heldu eta hari solteei tiraka hasi da.

Euskaldun eta emakume izatearen zapalkuntzak parekatzeko, naturalizazioaren ideia hartzen du oinarri saiakerak. Hau da, «azpirate egeoran dagoen norbanakoari sinetsaraztea hori dela naturaz, berez, dagokion lekua –natura edota berezkotasuna egitate jatorrizko eta finkoak baliari legez–». Emakumei eta euskara bezalako hizkuntza gutxi-



### 'Trikua esnatu da'

Idazleak: Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel. Argitaletxea: Susa.

## Denboraren Aurrezki Kutxa



### Imanol Mercero

Azken berrogei urteotan gazteentzat argitaratu diren obren artean, *Momo*-k hamar ezinbestekozen zerrendan egon beharko luke. Lehen aldiz kaleratu zenean, 1973an, dagoneko zalaparta sortu omen zuen, egiten duen salaketa sozial zorrotzagatik.

Irakurrita ez badaukazu, agian ezezaguna gertatuko zaizu izenburua; ez, ordea, bertako pertsonaia gaiztoak: Jaun grisak. Zer diren jaun grisak? Jaun grisak bizitzaren estresaren sinboloa dira, denbora zurrupatzailak, zorianaren akainak, Denboraren Aurrezki Kutxako langile fidelak, horixe dira jaun grisak.

Gurean hirugarren itzulpena du, eta ematen du oraingoz daukagun onena dela, jatorrizkoari zor zaion fidelitasunean, eta eus-

karazko emaitzari dagokionez.

Obra luzeskoa da, 326 orrialde, eta *antigoaleko* erritmoa du (kontuz, hau ez baita Geronimo Stiltonen arinkeria mardul horietako bat), baina kalitate du.

Ipuin luze baten antzera erakita dago, arketipoak ordezkatzen dituzten pertsonaiekin, eta mitologikoak diruditen beste batzuekin. Italia gogorarazten didan hiri batean kokatuta dago trama.

Ea nor ausartzen den esaten ez duela liburu hau irakurtzeko denborarik!



### 'Momo'

Idazlea: Michael Ende. Itzultzailea: Mikel Babiano. Argitaletxea: Begiko.

tuei ezarri zaizkien gaitasun mugatuak eta desgaitasunak zalanztan jartzea du helburu lehen atal honek. Era berean, euskararen kasuan, gure komunitate barrutik ere euskara desgaitzeko dagoen joera gogor kritikazten du.

Ahizpatzat dauzkate feminismoa eta euskalgintza, bigarren mailako borrokatzat tratatuak izanagatik elkarren arteko aliantzak ukaezinak baitira. Feminismoan horrenbeste indar duten publiko/pribatu eta femenino/maskulino dikotomiak darabiltza saiakera honek bi zapalkuntzak alderatuzko. Eskema horrek oso ulergarri egiten ditu bi alorren arteko antzekotasunak, baina paraleloan konparatze horrek batzuetan arrazoiketa nahiko binario eta errepikakor bilakatzen du, gaiarino izatera polidrikoko arriskuan jarriz. Hala ere, bilatu dituzte elkargurutzaketaren hainbat ertz, eta alde horretatik eskertzekoak dira liburuko zenbait atal, hala nola *Euskara maskulinitateki erakitzen denean* eta *Euskalgintzaren emaria, dekolonizazioa* atalak. Ezin esan gabe utzi, ertz horien bilaketan zonalde ez euskal-

dunetako bizipenek garrantzi handiagoa izan zezaketela, hari matazaren korapilo bikoitz edota hirukoitzak azaleratu nahian.

Azken finean, prestigioari, pribilegioei eta botereari buruz ari dira Agirre eta Eskisabel liburu honetan, baina baita zaintzari, ahalduzteari eta interseksionalitateari buruz, tartean izanik estereotipoak, frankismoa eta euskalgintza, esaterako. Pozgarria da eta beharrezkoa iruditzen zait guregan gorputzen diren bi identitate eta bi borroka teorizatu izana. Izan ere, idazleek dioten moduan, euskaldun eta emakume gisa zapalduak egotetik euskaltzale eta feminista izatera egindako urratsa azaleratzen baita liburuan. Askoren bizitzetan, behin baino gehiagotan zeharkatzen diren bi hari baitira, baina askoz gehiago dira zapalkuntzen arteko hari-sarea ikusi eta sentitzen ez dutenak, nor bere korapiloan zentratutik. Baliagarri izan bedi bai euskalgintzarako, bai feminismoarako: euskalgintza feminismoan ardatzeko, eta feminismoak euskararen aldeko borroka bere egiteko.

## David Bowieren begiak



### Imanol Mercero

Dituen 108 orrialdeak arin asko irakurrikito lituzke edozein nerabe irakurzailek.

Ukitzen diren gaiak ez dira nolalanahikoak, eta gazteen artean erakarpen handia lortuko lukeela iruditzen zait: Auto batek harrrapatuta, Hartutako Kalte Zerebrala duen neska bat da protagonista. Bere nobio ohia iheska dabil, lehen bikote panpoxa zena orain zuzen ibiltzea ia ezinezkoa zaion zera desatsegin bat bihurtu zaiolakoan. Semea zuritu nahian bataren gurasoak, are eta gehiago urratzen da bestearen gurasoen zauria. Ingurua aldakor (nerabezaroan halaberharrez, ezta?), istripuaren osteko lur hartzea eskolan, aktore berriak bihotza tau-parazten...

Egia esan, halako elementuekin sugetzar bat ateratekeen,

baina, zorionez, ez da hala. Egitararen oinarrian neskaren egunerokoa dago, tarteka agertzen diren e-posta mezuekin eta mezu elkarrizketekin jantzita. Hala jokatuta, narratzaile orojakilea saihesten dugu, eta pertsonaien ahotsak zuzenean jasotzeko aukera dugu, irakurlearen iritzi propioa eraikitzeko oso lagungarri gertatzen dena.

Funtsean, irakurlea giza harremanez hausnartzeko bidean jartzen du liburu honek, idazmolde irisgarri baten bidez, gainera.



### 'Iridium'

Idazlea: Francisco Castro. Itzultzailea: Mixel Murua Irigoien. Argitaletxea: Alberdania.